Asociación de Jubilados y Pensionistas del Antiguo
943215124 - 689903003
ANTIGUOKO JUBILATEN ELKARTEA

2019KO MARTXOAREN 27AN DURANGO ETA ELORRIORA

Irteera: 8etan – PREZIOA: 35 €

Durangora iritsi eta "hamaiketako" arin bat egingo dugu indarra hartzeko Erdi Aroko Durango bisitatzeko bertako gidari batekin. Bertako kaleetan ibiliz, bere historia erakutsiko digu, sarrerako ateak, dorreak eta jauregiak, etab. (Kurutzesantu Museoa, Udaletxea, Santa Ana Plaza, San Agustinalde, Exkurdi, Ulibarriko Santa Mariaren Basilika), Erdi Aroko bere eboluzioan 700 bat urte atzera bidaiatuz. Bisita bi taldetan banatuta egingo dugu.

Durango

Elorrio

Gero, behin misita amaiturik, bazkaltzera joango gara Elorriora Anboto Jatetxera, ondorengo menua jatera: Paella, arraina eta etxeko postrea, barne sarturik ogia, ardoa, ura eta kafea (on egin).

Barrena bapo bete eta gero, Elorriora joango gara non oinez paseotxo bat emango dugun jandakoa berdintzeko. Gure bisitari hasiera emango diogu hiria bisitatuz eta herri barruan dauden jauregi-eraikin ugariak eta interesgarria den guztia ikusteko.

Izena ematea bulegoan martxoaren 5etik aurrera.

Lehentasuna bazkideei emango zaie.

Izena ematea bertara joanez egingo da eta ez dira onartuko askoren izen-emateak, bi pertsona gehienez.